



Real Club Náutico
San Sebastián

Real Club Náutico de San Sebastián

Ijentea, 9
20003 San Sebastián
Teléfonoa: + (34) 943 423575
Faxa: + (34) 943 431365
info@rcnss.com
Radio VHF Canal 9

2008ko abendua

Euskara

Historia laburra

Real Club Náutico de San Sebastián (Donostiako Erret Klub Nautikoa), 1896 urtean sortu zen, eta ehun urte baino gehiagotan zehar Donostiaren identitateari lagundu dion Kluba izan da.

Sorreraren urtean donostiar bailandra zale talde batek Donostiako Klub Nautikoa sortu zuen, garai hartan Espainiako Gortearen udako egoitza zelarik. Haren lehen instalazioak Kontxa Badiako gabarroi handi batean kokatu ziren. 1905 urtean ordea lekuz aldatu ziren, arrain-haztegi batetaz jabetu ziren Kontxa Pasealeku bertan, gaur egun aurki dezakegun lekuan hain zuzen ere.

Arrain-haztegi honen gainean gaur egungo egoitza eraiki zen, Aizpurua eta Labayenen proiektua izan zen, zein Arkitektura Arrazionalistaren bitxitzat

hartzen den. Itsas jarduera oso garrantzitsua zen eta estropadetara Europa nahiz Ameriketatik

1951 eta 1955 urteetan, Donostiako Klub Nautikoak garai hartako ozeanoz handiko estropadarik garrantzitsuen antolatu zuen: Habana – Donostia.



Klubak bere Eskolen bitartez arlo desberdinetan itsas jarduerekin jarraitzen du, hala nola bela, piraguismo eta urpean igeri egite arloetan, bai hastapen zein promozio mailetan, eta baita txapelketa mailan probak antolatzen eta kanpoan egiten diren txapelketetara joaten ere.

AL REAL CLUB NAUTICO DE SAN SEBASTIAN EN SU CENTENARIO, ASI COMO AL CENTENARIO DEL HERMOSO DIABLO CON LA CIUDAD CON LAS OLAS Y CON LA MAR.

Nazioarte mailan, Armada Cup Race-k oihartzun handia dauka, bi urtetik behin ospatzen zen ekitaldi honek Plymouth eta Donostia hiriak elkartzen ditu, estropada hau Euskal Herrian gauzatzen den nazioarteko gurutzaldi estropada bakarra zelarik.

Eduardo Chillidak RCNSS-ren mendeurrena zela eta eginiko litografia

ekarritako gizarte mailak eta baita kirol mailak erakarrita bailandrak etortzen ziren.



Piraguismo Eskola 2008/09



Bela eskola 2008/09



Gurutzunzi estropada



Optimist Hastapeneko Estropada




Urpeko Jardueren Atala

Eraikina

Donostiako Klub Nautikoaren gizarte eraikina José Manuel Aizpurua Jauna eta Joaquín Labayen Jaun arkitektoen proiektuen arabera, 1928 – 1929 urte bitartean eraikia izan zen.

Hasi-hasieratik izan zuen begirune artistiko zein arkitektonikoa, eta gaur egun mundu mailan

arrazionalismoko bitxitzat jotzen da. 2000. urteko abenduan Eusko Jaurlaritzaren eskutik interes kulturalako ondasun izendapena jaso zuen "Monumentu" kategoriarekin.



RCNSS-ren egoitza 1929 urte inguruan.

www.rcnss.com

Eraikina eta arrazionalismoa

Gaur egungo RCNSS-ko eraikina, Donostiako portu ondoan eta Udal etxearen ondoan kokatua dago. Aurreko Klubeko egoitzaren gainean eraikia izan zen: "la bombonera" zenaren gainean alegia, bere beheko solairua aprobetxatuz.

Garai hartako arkitektura aldizkari batzuek argitaratzen dutenaren arabera, "kanpoko munduaz islatzeko itsasontzi eta etxe bat da, non bertako dena begi eta arimarentzat atsedena den." "Hemen ongi egoten da: ezerk ez du min egiten."

Aizpurua eta Labayen arkitektoen diseinuarekin bat eginez, lan berritzaile bat dela esan dezakegu, zeinek bere hastapenetatik gaur egun arte grinak sortu dituen.

Lurreraturik dagoen itsasontzi baten itxura hartzen du eraikinak, baina

bere diseinua mintzaira arrazionalista batetik abiatuak zuzendu da, non beirak hormak ordezkatu dituen eta haga batekin azken ukitua emana izan den, idi- begi eta abar, honek guztiak barrenean egonik ere itsasontzi baten barruan kokarazten gaituelarik.

Beronen sorrera oraindik ere Le

Corbusier-ren Villa Savoye baino lehenagokoa da, bere momentuan, hirian inpaktu handia izan zelarik. Bederatzi hilabete besterik ez zituzten eraikitzeko behar izan, eta 1929an, inauguratu berritan, argitaratuta agertzen da, batzuetan ekintza bereizi bezala eta beste batzuetan aldiz, zerbait zakarragoan parte bezala. Une honetan zutik dirauen mugimendu arrazionalistaren adibide hobereenetakoa dugu.



Donostiako Klub Nautikoaren gaur egungo bista Donostiako Portutik

Bere garaiko bide-aiztindari lana dugu, zeinetan horizontaltasuna nagusi den, bai barnealdean eta baita kanpoaldean ere, bereziki zainduriko polikromiarekin.

Eraikin honetan agerian jartzen da Aizpurua eta Labayenek arkitekturaren linguistikari dagokionean hartutako maisutasunezko zehaztasuna. Aparteko natura ingurune bikain batean kokaturik dago, non eraikinak badia eta Donostiako portuko sarrera zelatatu eta ikusmenean dituen.

RCNSS gaur egun

RCNSS-ak bere egoitza originalean kokaturik jarraitzen du eta bela, piraguismo, urpekaritza eta alturako arrantzako atalak ditu. Halaber, Bridge eta Kanasta txapelketetan ere bai parte hartzen du. Une honetan bere ekintzetan modu desberdinean parte hartzen duten 1300 bazkide baino gehiago ditu.

Bela eta Piraguismo eskoletan kirolarien etorkizuna ziurtatzen dute, urtean zehar, gure taldeek federaturik dauden hainbat txapelketetan parte hartzeko entrenatzen dute. Momentu honetan ia 100 mutil eta neskek Klubeko ekintzetan parte hartzen dute. Udan, Donostiako Udaletxearen laguntzarekin batera, bela arineko ikastaroak, gurutzuntzi ikastaro nahiz piraguismo ikastaroak antolatzen dira, hauek Klubeko taldeen harrobi bezala balio dutelarik. Era berean ezin du fisikoentzat ere bai Bela ikastaro bereziak antolatu izan dira.

Badian kokaturik dauden 130 ainguratoki kudeatzen ditu ere bai

klubak, hauek jada Donostiako udako paisaiaren parte izatera iritsi direlarik.

Estropada taldeek, bai Bela arinekoak eta baita gurutzuntzietakoak ere bai urtean zehar txapelketa ezberdinetan parte hartzen dute. RCNSS-ak ere bai, probintziako beste batzuekin batera, eta baita Nekazaritzako Departamentu, Arrantza eta Elikadura Sailen parte-hartzearekin eta "tunituen markaketa eta askatze" -arekin batera ere, hau guztia animalia-espezie horien buruz ikasten jarraitzeko laguntzeko xedearekin.

Ur azpiko Jardueren atalean, nahiz eta kopuru txikia izan, urtean zehar bere jarduera mantendu egiten du, egia bada ere kirol hau praktikatzeko Kantauri Itsasoko baldintzak ez direla hobereenak. Klubak urpean igeri egiteko bost ekipamendu oso ditu eta botilak kargatzeko konpresore bat.

Era berean, Klubak beteranoen zeharbidea antolatzen du uharterko

ontziratzeko leku eta RCNSSaren artean, berau abuztuan egiten da, Badiari igeri eginezko itzulia, Irailean gauzatzen da Igeriketa Federazioaren laguntzarekin eta abenduak 31ean ohiko urteko azken bainua.

Instalazioei dagokienez, Klubak eraikin historikoaz gain, egoitza nagusia dagoen lekua, gimnasioa, aldagela, pilotaleku txikia, egongelak, taberna-jatetxea, bulegoak, eta abar, Aquariumaren ondoan lokal bat dauka, bertan Bela Eskola eta Piraguismoaren baseak kokaturik daude, beren aldagela, gorde leku, eta abarrekin. Era berean Mari kalean biltegi bat dugu, non bertan itsasontziak gordetzen diren.

RCNSS Espainiar Klub Nautikoaren Elkartearen kide da eta aldi berean munduko leku desberdinetako beste 40 Klub Nautikoekin ere bai harremanetan dago.